

Biyak bat

ALKARRIZKETA TA ABAR EGINTZA BATEAN

TORIBIO ALZAGA'K ERATUA

1934

Banaketa

Antzeznotiñak

Egintariak

Bata

Egilegor jauna

Bestia

Beorlegi " "

Mutua

Egintza bakarra

Iruña bidea. Atzean eta aldamenetan zugatzak

Lenengo irudia

I

Bata

(Ezkutazapia igotzerakoan, eskuitik Bata azalduko da. Jaieguneko erropakin jantzia, bizkarrean txamarra zintzilik ta alpraketa txuri txuriak. Bide asko ibiltzeko eran dator baña ezkerrera irixtean bat batetan gelditzen da)

Bata: ¡Oi! ¡Berriz ere bi bide! Orain asma zak axkora, zein dan Iruña'rako ta zein Kantalapiedrarako. Au ez da pulamentua. Bidiak ez dira orrela egin biar.

Nik galdetu nuen Iruña'ra nundik juaten dan, eta esan zidaten bidiari jarraitu ta zuzen zuzen Iruña'ko zezen plazara iritxiko nitzala. Zuzen zuzen Sentoñako presiliyora irixten ez banaiz.

Izan ere bi pauso eman ordurako, bide bat ezkerrera bestia eskuira, bata gora, bestia bera...¡Nola asmatu!

Aixtiyan ere, okerreko bidia artu, ta an jua naiz aldapa gora, ordubeteko bidian, bart arratseko babarrunak botatzeko zoriyan.

Ttonttorrian erri txiki bat zegon, eta alderatu naizenian mutil koxkorak ojuka asi dira: ¡txikiatzallia! ¡txikiatzallia! – Neregatik ari ote dira - neregan egin det.

Beriala erriko agure ta atso, neskazar ta mukizu guztiyak, batzuek erratzakin, bestiak gorosti makillakin, alderatu zaizkit, danak oju ta deadarka. Gutxiyena ziyonak “txerriya” ziyon (Zer egin ote du txikiatzalleak erri artan).

¡Ni ez naiz txikiatzallia! oju egin diotet: Ni Iruña'ra San Premiñetako zezenak ikustera nua.

Ango karraxiak orduan. Sortu diran petralkeri zitalenak bota dizkidate (Zer egin ote du txikiatzalliak).

Ontan ikusten det amorru biziyan neregana datorrela atso lodi bat, piper morrua zirudien sudur mamitsu batekin, begietan betaurreko batzuek berebiletako faolak bezelakuak, eta bibotiak berriz kale-garbitzallien erratzak baño aundiyaguak. Sua botatzen zuen, eta ukabila altxa ta zuzen zuzen neregana zetorren.

Nik orduan atzera egin eta esan diot:

Etxekoandre ni ez naiz txikiatzallia, ni Iruña'ko zezenetara nua.

Ta ala diyo:

Etzera zezenetara juango, nik lenbizi estiak atera gabe.

Baña emakumia, nola nai dezu San Premiñetako zezenetara juatia... esteik gabe. Estiak biar biarrekuak ditut.

Guztien artian ez dakit nola ez nauten txirtxillatu.

Nolabait ere iges egin det; eta nere burua urruti xamar nabaitu dedanian, atzera begiratzen det, eta an zeuden oraindik besoak jaso ta ukabillak erakutziatz.

Nik orduan iseka egite arren txikiatzallien antzera txixtua jo diet.

(Txistua jotzen du)

Ango kaskabarra, orduantxe. Erriko arri guziyak aundi ta txikiak nere gain bota dizkidate. Nik uste det arri koskorren tartian arako atso lodi arren piper-morrueen antzeko sudurra ere etorri dala. Arrek jo banindu kontuak. (Zer egin ote du txikiatzalliak).

¿Ordu bete erri artara igotzen? Amar minutuan ¡zapla! galdutako bidera jetxi naiz, ta bideari berriro jarraitu diot, ta berriro... estroposo egin det.

¡Bi bide! Nola asmatu. Ta ez etxe bat inguruan, nori galdeturik ere ez...

(Bat batetan ezkerretara begiratuaz)

¡A! An dator gizaseme bat, ta berak esango dit. Orri eskerrak. Emen da bera.

Bigarren irudia

II

Bata ta Mutua

(Mutua ezkerretik sartzen da)

Bata: -Kaxo gizon. – Ondo e? – Etxeko guztiyak ondo izango zerate? Amona difuntaren berri ez dezute noski oraindik izango?

(Mutuak ezer ulertu gabe keñu batzuek egiten ditu)

Zertarako gelditu azi zaitudan salda zikiña baño garbiyago esango dizut.

Badakizu, ni Iruña'ra nua, San Premiñetako xexenak ikustera; baño, ikusten dezun bezela, emen bi bide daude, ta jakin nai nuke bide zuzena zein dan. Dan au, edo dan ori.

(Mutuak ezer ulertu gabe besuak luzatu, ta batzuetan bide bat erakusten du, bestietan bestia. Tartian ezetzko keinuak ere egiten ditu).

A! Beaz emendik, e? – Orduan, bestetik? - ¿Emendik ere ez? - Ortik orduan? – Andik?

Bide asmaketa, lagun onekin, len baño re zallago gertatzen zait.

Onek erdi mutua izan biar du, osua ez bada ere.

¿Nola adieraziko ote nioke nik Iruña'ko xexenetara juañ biar dedala?

A! Badakit...

(Txamarra eskuetan artu ta erriko gaztien antzera toriatzeko antza egiten du. Mutuak ezezko keñua egiten dio)

¿Ezetz? – Bai gizona; Iruña'ko xexenetara juañ biar dedala.

(Mutuak berriro ezezko keñua egiten dio, ta ondoren toriadorien antz jatorrian toriatzeko arazoa).

¿Oi! Toriadore jatorra dirudi gero.

(Mutuak gaizki egin duelako keñua Bata-ri egiten dio ta parrez ta isekaz eskuitik juaten da).

Au mutu baño len, toriadoria izango zan onenian. Nork daki zezenen batek itza ez ote ziyon kendu ere. Orrela bada, atso batzuek ezagutzen ditut nik, zezenak arrapatzia ondo etorriko litzayotekenak.

Dana dala, toriadore azkarra dala erakutsi du, baña Iruña'ko bidia zein dan, ori da erakutsi ez didana, ta orixen bakarra zan nik jakin nai nuena.

¡Bi bide! Nola asmatu...

(Eskaira begiratuaz)

¡A! Emen dator beste bat. Orretzek esango dit. Belarri-motza dirudi. Baña neri zer ajola dit. Gaztelarrez trebe ez banago bada: Musuliñek eta Estabiskik eta oyek baño garbiyago ta apañago itzegingo det nik.

Irugarren irudia

III

Bata ta Bestia

(Bestia eskuitik sartzen da)

Bata: Ola, On kaballeo, geldituar un txolarte.

Bestia: Atrakazion tenemos eo que.

Bata: No te es atraskasion, aurrera-kasion si que.

Bestia: Tanto panparroikeri porque te tienes pixtola eo asi.

Bata: Yo no te tienes pixtula. Pixtula te has teniro Joxe Menardo de Bordagoiko.

Bestia: Que saltzas.

Bata: Pero ya te estas mas mejor. En omalezencia paeze ke.

Bestia: A mi no errenbolberme txitxares, porque no se que hazer con atzaparras.

Bata: Atzaparras? Meter en guantes.

Bestia: ¿Y tu, porque meterte con mi?

Bata: Por hazer una perguntasion.

Bestia: ¿Y porque perguntasion?

Bata: Porque te has querao sin aurrea-kasion.

Bestia: ¡Qué ernegasion!

Bata: Sin aurrea-bide, si. Dos bides ya te atienes y no te sabes que bide es el bide ¿por qué bides dos y...

Bestia: Oraintxe iya amorratu azi nak ire erdera traketzakin.

Bata: Baña ¿euskalduna al aiz i?

Bestia: Zer uste ukan ba ¿Ez al dek ikusten euskaldun pasaportia non daamatan?

(Sudurra erakutsiaz)

Bata: ¿Eta Iruña'ra al ua?

Bestia: Ez; Leiza'ra niak.

Bata: ¿Leiza'n ere ba al dia xexenak?

Bestia: Ez; Leiza'n mojak dituk.

Bata: ¿Eta mojak toriatzea al ua?

Bestia: Ez; mukiyak kentzea niak. Ori dek jakin biarra.

Bata: Zer nai dek. Nik onelakua nak eta.

Bestia: Guziya esango diat ba. Badakik, arizko musu-zapi eder batzuek nere ezkon-arrebak biali zizkiak.

Bata: A! Bazekiat. Eta ik orain musu-zapi oyekin mukiyak kendu biar dizkiotek.

Bestia: Etzakala orrelako astokeririk esan. Nire izebak, aizpa bat dik moja Leiza'n. Eta musuzapiak biali dizkiagu ara izkiak, letrak bordatzeko.

Bata: Baita, baita. Orain ulertzen diat.

Bestia: Baña eskutitzan gaizki jarri ditek, eta orain niak ni propiyo, itzez dana dan bezela adieraztera.

Bata: Baita re, baita re.

Bestia: Baatik, nere izena *emerekin* asten dek, baña ez dek *emerekin* asten.

Bata: ¿Zer korapillo da ori?

Bestia: Bai ba. Ni *eme* nak...

Bata: ¿*Eme*?

Bestia: *Eme*, bai.

Bata: ¡Oi! Ta ni *arra*.

Bestia: Ni nak *Eme-terio*.

Bata: Ta ni *Arra*-pael. Orra *arra* ta emia nun bildu geran.

Bestia: Dana dala *Eme* ez dek *eme* jarri biar. Jarri biar dek: *E*.

Bata: ¿*E*?

Bestia: *E*, bai.

Bata: ¡*E*!

Bestia: Ta ori adieraztera alkarrekin juango gaituk.

Bata: Ni Iruña'ra niak ordia.

Bestia: Ta ni Leiza'ra. Baña nola Iruña'ko onduan dagon...

Bata: Orduan, ederki. I, mojetara; ta ni San Premiñetako xexenetara.

Bestia: Ik zezenetarako zale aundiya izan biar dek.

Bata: Itxutua, mutil, itxutua.

Bestia: Ezagun dek. Eta i zezenetan askotan izango itzan.

Bata: Nere biziyan, orain arte... bein bakarrik izan nak.

Bestia: Ez dek asko.

Bata: Baña, itxutua, itxutua. Ondo gogoratzen nak. Orain amasei urte, lenengo ta azkeneko aldiz nere aitak eraman niokan. Lenbiziko agiña atera nuenian.

Bestia: ¿Eta zeñek atera zikan?

Bata: Erriko errementariak. Azkarra ukan. Esku tresnakin ezin zuenian, sutegiko suatzakin, tenaza aundiyakin agiñak ateratzen zizkikan.

Bestia: Gure erriko Brijidda Anttoni azkarragua dek oraindik.

Bata: ¿Agiñak zerekin ateratzen dizkik ba?

Bestia: Ukabillakin.

Bata: Ez dek makala.

Bestia: Bernaiño gizarajuai ere, alabari zirri egin ziolako eman zion zartatekuakin iru agin eta letagin bat atera zizkiokan.

Bata: Ez dik indar gutxi.

Bestia: Uzkudun'ek artuko lizkikek arren indarrak. Bein batian, urte askoren buruan amonatxo gaxo bat errira biurtu, Brijidda Anttoni bera laztantzeko asmuan juan ukan eta eman zion estualdiyakin bi kostilla autzita utzi zikan.

Bata: Ez nitek orreatik emakumen orren senar izan nai.

Bestia: ¿Senarra? Expain okerra dek. Abua onela okertuaz ibiltzen dek. Berak jayotzatik dala ziok; baña nik uste diat emaztiaren kinkiñazoen bat izan biar duela.

Bata: Maite-maite egingo ziokan eta.

Bestia: Emakume ori inguru abetan guzietan ezagutzen ditek. Nere erri berekua dek. Badakik bide ontan bertan.

(Eskuia erakutsiaz)

ezkerrera, aldapa gora, ordubeteko bidia...

Bata: ¿Ordubeteko bidia? Izan nak eta txikiatzalletzat artu niotek.

Bestia: ¿Txikiatzalletzat? ¿Eta bizirik nola atera aiz?

Bata: Al dedan bezela.

Bestia: An txikiatzallea begiz ezin ikusi ditek.

Bata: Bazekiat, bai. Larri ederrak igaro biar izan dizkiat. Eta, okerrena amorru biziyan etorri zaat atso lodi bat...

Bestia: ¿E?

Bata: Piper-morrua zirudien sudur mamitsu batekin...

Bestia: Ori, ori.

Bata: Begietan betaurreko batzuek berebiletako faolak bezelakuak...

Bestia: Ori, ori.

Bata: Eta bibotiak berriz kalegarbitzallien erratzak baño aundiyaguak..

Bestia: Ori, ori. Orixen dek Brijidda Anttoni. Arrapatu izan baidu agiñik gabe uzten au.

Bata: Ez, etzikan agiñik nai. Nere estiak biar omen zizkikan. Berak ala ziokan beintzat. Etzekiat nere estiak zertarako biar zituen.

Bestia: Zertarako biarko zizkikan: txorixuak egiteko noski.

Bata: ¡Enak ari, txorixua! Nere estiak neronek biar dizkiat. Bai, ba, San Premiñ'etako xexenetara juateko.

Bestia: Ni re, irekin juango nak.

Bata: ¿I re, bai?

Bestia: Bai, Leiza'ko eginbearra amaitu, ta biyak juango gaituk Iruña'ra.

Bata: Ori dek: biyak.

Bestia: Biyak bat.

Bata: Bai; biyak juango gaituk... bidia asmatzen badegu.

Bestia: Izan ere...¿bañan i len nundik jua itzan?

Bata: ¿Noiz gero?

Bestia: Lenengo aldiz, edo azkeneko aldiz zezenetan izan itzarian.

Bata: Ez nindukan ordia Iruña'n izan.

Bestia: ¿Nun bada?

Bata: Pasai Donibanen.

Bestia: Ori besterik dek. Baña, Pasayan, xexen kaxkarrak izaten dituk ordia.

Bata: ¿Pasayan? Xexen bizi, argi, azkarrak, letraduak baño geyago bazekitek.

Bestia: Ixkribauak izango dituk orduan.

Bata: Oroitzen nak xexen adar motx bat. Biziyagua ukan. Bere adar motxakin aizia ere arapatzen zikan.

Bestia: Orrenbeste aizerekin puztutu re egingo ukan.

Bata: Toliadoriak berriz braketatik artu ta aidian zerabilzkikan.

Bestia: Aidian karrakillo.

Bata: Alakorik batian, toliadore bati jarraitzen zio, eta toliadoriak, galdua arkitu zanian, bere burua itxasora bota zikan.

Bestia ¡Itoko ukan!

Bata: Bai zera. Beriala antziak xexena ta ¡zapla! Ura re ¡itxasora! ¡Zanbulla talenta!

Bestia: Ta bazekiat. Biyak estropadan asiko itukan.

Bata: Nik xexenaren alde jokatu nikan ba.

Bestia: Nik ere bai.

Bata: Igari egiten zikan patxara batekin fa... fa... Noizian bein burua jaso ta esaten zikan: "Caballeo eche uste un perra y cojeré con la boca"

Bestia: ¿Xexenak?

Bata: Xexenak, bai

Bestia: Ik amets egingo ukan.

Bata: Zer egin biar nikan. Nik uste diat xexen arrek musian ere bazekiyela.

Bestia: Bai, baña, Iruña'ko zezenak bestelakuak izaten dituk.

Bata: Bai noski; ausoko Martin Joxe'k makiñabat aldiz esaten ziukan. Ura urtero juaten ukan. Beste lau edo bost lagunekin goizian goizetik alpraketa txuri txuriyak jarri ta an ziaztik. Zenbat aldiz irrikitzen gelditu ote nak..

Bestia: ¿Eta zergatik ez itzan juaten?

Bata: Patrikan plemoya nuelako.

Bestia: Gaitz txarra dek ori.

Bata: Garratza. Baña aurtan, txanpon batzuek bildu dizkiat, eta alpraketa txuri txuriak jarri, ta beintizinko baño dotoriago etxetik irten nak.

Bestia: Ausoko Martin Joxe bezela.

Bata: A! Ta arrek esaten zikan nola bein Iruña'n lenbiziko zezena atera zan beltza; bigarrena bel-beltza; irugarrena bel-bel-bel-beltza; ta laugarrena bel-bel-bel-bel-bel-bel-beltza.

Bestia: ¿Ta ire iritziyan, zein dek beltzena?

Bata: ¿Beltzena?

Bestia: Beltzena, bai.

Bata: Beltzena ... guri gertatzen zaiguna: bi bide aurrian eta ezin asmatu nundik juan. Ori dek beltza, ori.

Bestia: Egiya diyok, to; ta zer edo zer egin biariko diagu. Bestela, onela bagaude, aurtengo San Premiñetarako ez gaituk Iruña'ra iritxiko.

Bata: Ez ta datorren urtekuetarako ere.

Bestia: Zirt edo zart egin biar diagu ba.

(Pixka bat oldoztu ondoren)

Bata: Bai, i ago emen pixka batian, eta ni bitartian zerbait aurreratuko nak, aztarrenik ateratzen ote dedan.

Bestia: Ua bai. Emen itxoingo diat.

(Bata ezkerretik juaten da)

Gezurra dirudi. Biderik ez balitz, nola edo ala antolatuko giñake; ta emen baten orde z bi bide, ta ezin ezer egin. Ez ba aukerik ez dalako. Nik ere zerbait egin biar nuke ba. Ez dakit zer...

(Batera ta bestera begiratzten du ta azkenik eskuira begira gelditzen da)

¿E? Or dabillen gizaseme orri deituko diot.

(Ojuka)

E! Zu! Adizkidea! Zu! (Arrizkua balitz bezela) Zu! Astakirtena! (Oraintxe begiratu du) Zu, bai!
Ator onera, gizona! Onera! (Noizbait ere).

Laugarren irudia

IV

Bestia ta Mutua

(Mutua eskuitik sartzen da)

Bestia: Atoz onera. Ez ezer ere galdetu. Esan biar dana, nik esango det. Zu ixilik.

(Ezker aldera eramaten du. Mutuak ezer ulertu gabe karraxi antzeko bat egiten du)

¡Ixo! ¡Ixilik egoteko nola esan biar degu! Itz bat ere ez dezu esan biar. Nik galdetu arte ixilik
¡Ixilik!

(Beatza ezpañetan jarririk . Mutuak ere ezer ez ulertu arren beatza ezpañetan jartzen du)

¡Ixilik!

(Biyak ezker aldera jarraitzen dute. Bat batetan Mutuak karraxi antzeko bat egiten du)

Ixilik egoteko. Berritsu alena ez besterena. ¡Ixilik!

(Ezkerrera irixten dira)

Ia. Esan orain argi ta garbi: ¿Iruña'ko bidia zein da? ¿Au, edo ori? Esan. Itzegin orain.

(Mutuak ezer ulertu gabe ezkerreko aurre aldera besoa luzatzen du)

¿Ori al da? Naikua degu orduan. Alde orain emendik.

(Besotik eldu ta eskui aldera uxiatuaz)

Aide, aide; naikua itzegin deguta. Ez degu ezer geyago jakin biarririk. Alde, alde emendik.

(Mutua eskuitik juaten da)

Noizbait ere juan aiz ;Berritsu! ;Itza-jariyo! Ori iturriya. Itza partitu zanian an itzan bai. Bere itzegin biarrarekin buru guziya nastutu dit ;Itzontzi!

Bostgarren irudia

V

Bata ta Bestia. Gero Mutua

(Bata ezkerreko atzetik sartzen da)

Bata: ¡Koldobika!

Bestia: Eme...

Bata: A, bai! Eme...zortzi, ez, ez. Eme...retzi. Ez ta re.

Bestia: Eme-terio.

Bata: Ori dek: Emeterio. Banekikan nik zerbait. Bada, Emeterio, Iruña'ko bidia bezekiat nondik dan.

Bestia: Nik ere bai.

Bata: ¿E?

Bestia: Bai; nik ere bai.

Bata: Neri oraintxe esan ziatek.

Bestia: Neri ere oraintxe bertan.

Bata: Orduan etziok ezer geyago esan biarrik. Dakikan bezela Iruña'ko bidia emendik dek.

(Ezkerreko atzea erakutsiaz)

Bestia: Ez, jauna; Iruña'ko bidia emendik dek.

(Ezkerreko aurea erakutziatz)

Bata: Emendik dala.

Bestia: Ez, jauna; emendik.

Bata: Baña...

Bestia: Emendik, bai; emendik.

Bata: Ezetz.

Bestia: Bayetz.

Bata: Ezetz.

Bestia: Bayetz.

Bata: Au ez dek orreatik biyak bat.

Bestia: Ez; biyak bi, dek au.

Bata: Baña, baserritar batek oraintxe esan ziak eta.

Bestia: Neri berriz, gizaseme batek.

Bata: ¿Gizaseme batek?

Bestia: Gizaseme batek, bai.

(Eskaira begiratu ondoren)

A! An dagon gizaseme arrek.

Bata:

(Eskaira begiratuaz)

¿Gizaseme arrek?

(*Berriro begiratuaz*)

Gizaseme...

(*Ostera begiratuaz*)

Ez; gizaseme orrek ez dik ezer esan.

Bestia: ¿Ez dirala... ?

Bata: Ez jauna, ez.

Bestia: ¿Esango diak neri ez didala esan...?

Bata: Ez ta itzik ere.

Bestia: Ez didala...

Bata: Ezta erdirik ere. Nola esango zikan, *mutua* dek eta.

Bestia: ¿Mutua ori?

Bata: Bai.

Bestia: ¿Ori mutua?

Bata: Bai.

Bestia: Berritsu galanta ori. Ixilik eukitzen lanak eman zizkiak.

Bata: Ori gure sukaldeko pertza baño mutuagua dek bada.

Bestia: ¿Ori? Itzontzi. Belarrietatik ere itza zijoakiok.

Bata: Belarrietatik, balitekek. Baña abotik ez.

Bestia: Deituko zioagu ta ikusiko dek.

Bata: Ikusi, bai; baña entzun, ez.

Bestia: Beriala deituko ziuat.

Bata: Bai; beriala.

(Biyak eskuira alderatzen dira)

Bestia: ¡E! ¡Zu! ¡Zu!

Bata:

(Lenbizi txixtua jota)

Atoz, atoz onera.

(Biyak erdiratzen dira)

Bestia: Orain jakingo diagu.

Bata: Beriala.

(Mutua eskuiean azaltzen da)

Bestia: *(Mutuari)* Atoz onera.

(Mutua biyen erdian jartzen da)

Ta orain nai dezun guziya itzegin. Mutua omen zara ta...

(Parrez ta isekaz Bata'ri begira)

Bata: Berritsua omen zera ta...

(Parrez ta isekaz Bestia'ri begira)

Bestia: Mutua...

Bata: Berritsua...

(Mutuak ezer ulertu gabe, ixiltzeko keñuak eta abar egiten ditu. Bestia zerbait konturatzen asi da)

Bestia: Baña zer: ¿agortu egin al zera?

Bata: Galdetu akiyok oni, ollaxkuak zenbatian dauden.

Bestia: Len ezin ixil arazi, ta orain...

Bata: Berriz ere mutua, erexago ixil araziko dek, itzegin arazi baño.

(Mutuak keñu batzuek egin ondoren, eskuitik alde egingo du)

Bestia: ¡Mutua! Onek bai pipen txortena jo digula.

Bata: Ta badakik orain Iruña'ko bidia ori dala.

Bestia: Ala izan biarko dik.

Bata: Bai; ta emengo korapillua askatu dek eta guazemak.

Bestia: Bai! Guazemak Iruña'ra.

Bata: San Premiñetako xexenetara.

Bestia: ¡Biyak!

Bata ta Bestia: ¡Biyak bat!

(Alkarri eldu ta biyak oso alaitsu Iruña'ko erara dantzatuaz, ezkerreko atzetik juaten dira)

AMAYA